

SARRERA: Zer da Bermeoko Udalarentzat BERRIKUNTZA?

"Berrikuntza publikoa kudeaketa publikoaren eremuan, ideia eta jarduera berritzaileak aplikatzea da, gizarte- balioa sortzeaz gain eraginkortasunean irabazteko.

*Berrikuntza, Bermeoko Udalean, gauzak egiteko beste modu bat garatzean datza, erronka berriei ikuspegi berriekin ekitea, **PERTSONAK eta LANKIDETZA** oinarri izanda, konfiantza, gardentasuna, koordinazio, kolaborazioa eta helburu amankomunen finkapena, balore gisa hartuta, ibilbide berriei ekitea, orain arte lagungarri izan zaiguna mantenduta baina ekintza eta dinamika berriei ekiteko ausartak izanda.*

Pertsonak (erakunde barne zein kanpokoak), horien arteko sinergia eta lan egiteko ahalmena, teknologia berriak, gizarte teknologia (U-teoria, Desing Thinking...), gizarte sareak, gobernu etikoak, kudeaketa aurreratuak eta belaunaldi aldaketa ikuspegi berritzaile batekin egiteko ikuspegiak, Bermeoko Udala identifikatzen duten ezaugarriak dira; berrikuntza plan honetako ezinbesteko osagaiak alegia.

*Berrikuntza Plan honek herri-administrazioa **berritzaileagoa, irekiagoa eta eraginkorrago** egiteko **erronka bere gain hartzen du PERTSONAK ETA LANKIDETZA** planaren dianan edo erdian jarrita.*

BEHARREZKO EZAUGARRIAK: Zeintzuk dira gure baloreak?

A.- Sailen eta esku hartzen duten eragile guztien konpromisoa

Udaleko Saitetako teknikari zein gainerako langileek Udalak abian dituen aldaketa-berrikuntzak berezkoz hartzen ez badute, parte sentitzen ez badira eta horien onura kolektiboa epe ertainera ulertzen ez badute, proiektu edo erronkaren biziraupena kolokan egon daiteke.

Nahitaezkoa da, ikuspegi bateratua, ondo komunikatua eta eraldaketarako ahalmenarekin begiratzea, jada eskuartean daukagun herri administrazioen egoerari.

B.- Lidergoa

*Herri Administrazioan, martxan jartzen den **Proiektu berri baten aurrean zein eraldaketa baten aurrean**, erakundearen, erabakiak hartu, baliabideak eskaini eta beharrezko babes eskaini ahal dioten eragile klabeen laguntza, inplikazio eta sostengua beharrezkoa da, benetako berrikuntza bat aurrera eramateko. Herri Administrazioako ordezkariak, eraldaketarako ausardia eta konpromisoa izan behar dute, jada aldaketa eskaria ganean baitogu eta hurrengo urteetan, eraldaketen kudeaketa erronka nagusi bat baitogu.*

C.- Zeharkako ikuspegia

Agerian dago berrikuntza publikoko politiken eta ekimenen zeharkako ikuspegia sendotzeko premia dagoela, Zeharkako ikuspegi hori hasiera-hasieratik aplikatu behar da proiektu eta aldaketa prozesuetan, erakunde guztiaren lankidetzeta eta kolaborazioa bermatuta.

Sail baten proiektu isolatu bezala ikusten bada berrikuntza publikoko edozein ekimen, porrot egiteko aukera handiak ditu, izan be, erakundeko sail eta zerbitzu guztien zeharkako ikuspegi eta inplikazio barrik, ezinezkoa da.

D.- Aldaketaren komunikazio eta lankidetzarako prozesua

Berrikuntza Publikoaren helburuek aldaketa handiak ekarriko dituzte gauzak egiteko moduan zein orain arteko antolaketa moduan. Nahitaezkoa da esku hartzen duten pertsona guztiek helburua zein lan dinamikak ezagutzea, dituzten ekarpen, zailtasun, ezinegon, hobetzeko iradokizunak zein ideia berritzaileak, proiektuaren baitan zelan txertatu edo bideratu jakitea.



Horretarako baliabide, egitura eta lankidetzaren prozesuak definiturik izan behar ditu Udalak, erresistentziarik gairik, ideia berritzaileak praktikara erortzen eta aldaketak berrien ezarpenaren bidez erakunde baten bideratzeko.

E.- Prestakuntza

Gauzak beste modu batera egiteko, trebetasun eta gaitasun berriez jabetzea beharrezkoa da. Horregatik, funtsezkoa da prestakuntza-plan bat izatea, erakundeko langileei testuinguru berrira egokitzeko tresnak emango dizkiena. Beharrezkoa da erakundeko pertsona guztiei zenbait balio helaraztea (adibidez, berrikuntza eta zerbitzua emateko jarrera), bai eta hainbat gaitasun ere gauzak egiteko modu berrietara moldatu daitezkeen eta baliabide teknologiko berriak ahalik eta gehien aprobetxatu ditzaten.

F.- Antolaketa-egituren egokitzapena

Egunero ereduaren oinarritu diren antolaketa-egiturak egokitu egin behar dira berrikuntzaren eta beharrezko eraldaketaren zerbitzura. Era berean, lanpostuen profilak zeregin eta ardura berrien arabera eguneratu behar dira, eraldaketa hain handien aurrean, horietara egokitzeko gaitasuna duten profesionalak behar dira Administrazioan.

Eraldaketa zein berrikuntza eragiten duten proiektu eta erronkak martxan jartzeko, orain 40 urteko egiturak eta antolatzeko sistemak ez dira eraginkorrak.

Beharrezkoak diren berriei eusteko, lan dinamika berriak posible izateko, balioaniztasuna sustatzeko, sail egitura gairik eta udal ikuspegi baten baitan emaitzetara bideratutako funtzionamendua posible izateko, egitura berriak, bilgune berriak eta talde lanak ezinbestekoak dira.

G.- Kudeaketa eta jarraipena

Proiektu klabeek behar duten moduan, edozein proiektu berritzailek, jarraipenerako organo bat behar du, egon daitezkeen desbideraketak zuzendu, emandako urratsen azterketa zein balorazioa egin, hobetzeko aukerak identifikatu eta arriskuen aurrean prebentzio ekintzak bideratzeko.

H.- Gardentasuna

Egindako lanak, emandako pausuak, bai barnean bai kanpoan ezagutarazi, elkar partekatu, sinergiak lortu eta elkarrengarritasuna bilatu behar dute, gure lan dinamiken baitan egon behar den balore bat gisa. Udala egiten ari den ibilbidea ezagutzeko, proiektu eta udal ekimenen egoera jakitea, emaitzak publiko egitea eta azken finean, kontuak errendatzea, egiteko modu bat izan behar dute administrazioan.

2017-2020: UDALAREN BERRIKUNTZARAKO PLANA

Lan egiteko modu bat 4 ardatzetan jorratuta:

1.- BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOAREN BARNERATZEA: E-ADMINISTRAZIOA – SMARTCITY	2.- MAKERS HERRITARRAK: LANKIDETZA – GIZARTE TEKNOLOGIAK
3.- GARDENTASUNA & OPEN DATA & DATUEN SEGURTASUNA	4.- LAN EGITEKO MODU BAT: UDAL EGITURAK - KUDEAKETA AURRERATUA -BARNE LANKIDETZA- LANGILEEN EGITEKO BERRIAK-PERFIL BARRIAK



Ardatza	Ekintzak	2017	2018	2019	2020	
1.- Aldaketak eragikortasunez egin ahal izateko	1.- 39/2015-40/2015 Legeen betepenerako ezinbesteko, espedienteen kudeaketarako aplikazio aren martxan jartzea.	X				
erraztasunak, integrazioa trazabilitatea zein lankidetzak	2.- Lehen espediente elektronikoa prestatu, beharrezko sinadura elektronikoa eskuratu, sinadura karpeta, sarrera erregistroa, jakinarazpenak, eta Egoitza Elektronikoa bat eginda funtzionatzeko arkitektura teknikoak eskuratu, parametrizatu eta martxan jartzeko prestatu.	X				
posible egingo duten baliabideak eskuratzea.	3.- 2018ko urrian elektronikoki tramitatu ahal izateko proiektuaren diseinu eta ekintza plana (eranskina). Barneko hedapena, ekintzak eta kanpora begira egitekoak.	X	X*			
	4.- 2019an herriko elkarte eta enpresak elektronikoki lanean euren lankidetzarekin zerbitzua moldatuta.		X	X		
	5.- Herritarrekin lankidetzak e-administrazioa udalarekin hartu emanetarako bide bilakatzeko.			X		
	6.- Elektronikoki tramiteak egin, informazio zein jakinarazpenak eskuratu, elkar lanketa, iritzi, kontsultak... egin ahal izateko, teknologi berrien uztartzea herritarrekin lanketa prozesu bat eginda. (Panelak, app-ak, komunikazio kanal berriak, udal web guneak...) Udal proiektuak herritarrengana heltzeko zeintzuk baliabide behar ditugu?			X	X	
	7.- Herriaren beharrezkoak ikusita, Smartcity proiektuaren garapena (plana) hurrengo 4 urteetarako. Itsasargi proiektuak identifikatu (proyectos Faro), ikasi, egokitu eta exekutatzeko.					X
2. Administrazioak Herritarrentzat egiten du lan. Eskaintzen dituen zerbitzuak, benetan herritarrek behar dituenak eta behar dituen modukoak izateko, administrazioko langileen ahalmen teknikoarekin batera, herritarren ikuspuntua, zein zerbitzu batzuen diseinuan lankidetzak, are gehiago, herri bat eraikitze bakoitzak dituen ahalmen eta aukerak, eskaintzeko dinamikak jorratu behar dira, modu kolaboratiboa, egiteko modu bilakatuta, gardentasunez,	1.- Gizarte Teknologietaz jabetu Udal barnean, eta Herritarrekin lehen saioak (U-teoria, Desing Thinking)	X (2016)				
	2.- Asetasun inkestak (2 legegaldi bakoitzeko). Gure jarduna neurtu eta helburu berriak, emaitza hauek kontuan izanda finkatzeko.	X				
	3.- Bermeo-Lab egitasmoa martxan jarri. (herritar talde finko bat, Udalarekin elkar lanean aritzeko prest, edozein proiektu zein ekimen martxan jarri aurretik, eurekin lanketa bat eginda, konfiantzaz eta landutakoa, martxan jartzeko konpromisoarekin.) + Partaidetza-lankidetzak bidez egiten diren ekimen guztiak uztartzea , sinergiak aprobetxatu, eragile garrantzitsuekin kontatu eta feedback sistema bateratuekin lan egiteko.				x	x
	4.- Hurrengo udal zerbitzu karta herritarrekin diseinatu.				X	



konfiantzaz, zintzotasunez eta besteenganako eskaintza, gure ezaugarri bat eginda.	5.- Udalak orain arte gizarte teknologien bidez egindako lanak berritu eta udal kudeaketaren baitan uztartu, aurrekontuetan kontuan izan eta saio berriekin, lana amaitzeko			X	X
3.- Udal kudeaketa plazaratu behar da. Herriak, egindakoa, egiten gabiltzana, eta egingo dugunaren berri izateaz gain, nola egiten dugun, zeintzuk emaitzak lortzen ditugun, zeintzuk diren gure balio eta egiteko moduak, zein, egindakoa hasieran adierazitako helburuarekin bat ez datorrenean kontuak emateko dinamika, administrazioaren egiteko modua izan behar du. Datuen babesa bermatuta, informazio guztia eskaini eta informazio hori berrerebiltzeko aukera eskeinita.	1.- Gardentasun ataria publikatu	X (2016)			
	2.- Datu pertsonalen babesa bermatzeko eta Europako erregelamendu orokorrera egokitzeko proiektua		X		
	3.- Gardentasun ataria , lege betepena bermatuta, herritarren ikuspuntutik, herritarren oinetan jarrita, zein datuak informazio bilakatuta publikatzeko proiektua (Herritarrekin lankidetzan)			X	
	4.- Udalaren lan dinamiken azterketa, informazioa-datua sortzen den momentuan, izan behar duen euskarri eta gutxiengoak udalean ezarrita. Open data proiektuaren oinarri gisa. Datuen bateratzea, datuen erabilera erregulatu.			X	
	5.- OPEN DATA proiektua			X	X
	6.- Herritarrei komunikazioa, berritzaile, eguneratua, euren beharrezanetara egokitua, gizarte sare, zein baliabide aurrerakoiak erabilia, baina berme guztiak kontrolpean izanda. Kanpo komunikazioaren kudeaketa sistema (gizarte sareen gida, informazioaren erantzuleak, hizkera...)				X
4.- Udal berritzailea: ez teknologia berriak barneratu dituelako soilik, baizik, egiteko modu berriak dituelako; pertsonak oinarri hartuta eta herritarrak ikuspegian izanda une oro, lan egiten duelako. Lankidetzaren balio moduan duena, emaitzak lortzera bideratuta dagoena, bere kudeaketa neurtu egiten duena, eraginkortasuna bilatzen duena eta aldatzeko beti prest dagoena, herriari behar duen arreta zein protagonismoa eskainita (egiten utzita).	UDAL EGITURAK				
	KUDEAKETA AURRERATUA				
	BARNE LANKIDETZA				
	LANGILEEN EGITEKO BERRIAK, ERRONKA GISA				
	PERFIL BARRIAK, PERFILEN BERRIKUNTZA, EMAKUMEAREN ENERGIA				



